

3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala

Aurten 2 ikastaro eskeiniko dira:

Oinarrizko IKT Tresnak (Kudeaketarako)

Helburua:

Irakasleei gelako oinarrizko IKT tresnen erabilera azaltzea.

Antolamendua:

Formakuntza hiru saioetan antolatuko da. Saio bakoitzak 2 ordu iraunduko du.

Saioak:

1. **Gmail eta Drive.** Oinarrizko erabilerak. Emailak, etiketak, karpetak sortu eta tartekatu.
Kasu praktikoa: Emailak bidali, artxiboak gehitu, dokumentuak igo
Drivera, tartekatu eta antolatu Driveko fitxategiak.
2. **Docs eta Calc.** Dokumentuak eta kalkulu orriak sortu.
Kasu praktikoa: Azterketa bat sortu eta Kalkulu orri batekin notak kalkulatu.
3. **Calendar.** Agenda kudeatu. Kasu praktikoak. Egindako guztia ikusi eta zalantzak argitu. Beste tresna digitalen erabilera pedagogikoa aztertu.

Metodologia:

Metodologia guztiz praktikoa izango da, ariketen bitartez. Informatika gelan izango da.

Parte hartzaile guztiek kasu praktikoa betetzea izango du helburu ikastaroaren irakasleak.



IKT Tresna Aurreratuak (Klaserako)

Helburua:

Irakasleei, IKT tresna berriak erakutsi eguneroko lana errazteko.

Antolamendua:

Formakuntza hiru saiotan antolatuko da. Saio bakoitzak 2 ordu iraunduko du.

Saioak:

1. **Drive eta Google Forms.** Drive antolatu, dokumentuak tartekatu, Google formsekin azterketak eta inkestak sortu, emaitzak kalkulu orrian...
Kasu praktikoa: Automatikoki zuzentzen den azterketa bat prestatu eta emaitzak aztertu. Driveko tartekatze arazoak aztertu. (Zer gertatzen da tartetatutako karpeta bat beste karpeta batera mugitzen dugunean?,...)
2. **Google Classroom.** Zer da google classroom, zertarako erabili klasean, notak jarri, ikasleak apuntatu, inkestak, azterketak eta lanak jarri...
Kasu praktikoa: Gela baten baliabide digitalak batu, lanak eta azterketak jarri irakasleei.
3. **Beste IKT tresnak** klasean erabiltzeko. **Kahoot, Educaplay...**
Egindakoa ikusi eta zalantzak argitu. Beste tresna digitalen erabilera pedagogikoa aztertu.

Metodologia:

Metodologia guztiz praktikoa izango da. Informatika gelan izango da. Parte hartzaile guztiek kasu praktikoa betetzea izango du helburu ikastaroaren irakasleak.

Bi ikastaro hauetaz gain, beste formakuntza bat lotuko da (data oraindik zehaztu gabe dago) gure Hizkuntza Proiektuari bultzada bat emateko.

